Ibilgailua itzultzean erregaiaren maila tankearen laurdena baino gutxiagokoa bada, erabiltzaileak kontzeptu horretarako zehaztutako gainkarga ordaindu beharko du, zigor gisa.

Los/las usuarias que no devuelvan el vehículo con al menos un cuarto de depósito, deberán abonar como penalización el recargo detallado para este concepto.

Erabiltzaile batek Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak emandako erregaiaren txartela iruzurrez erabiltzen badu, mankomunitateak kontratua suntsiarazi ahalko du. Edozein kasutan, erabiltzaileak bere gain hartu beharko du justifikatu gabeko erregaiaren gastua, eta Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateari txartela iruzurrez erabiltzearen ondoriozko edozein kalte edo galera ordaindu beharko dio.

En caso de utilización fraudulenta por un/a usuaria de la tarjeta de combustible proporcionada por la Mancomunidad de Servicios Uribe Kosta, esta última podrá resolver el contrato. En todo caso, el/la usuaria deberá hacerse cargo del gasto de combustible no justificado y resarcir a la Mancomunidad de Servicios Uribe Kosta de cualquier daño o perjuicio derivado del uso fraudulento de la tarjeta.

Erabiltzaileak erregaiaren txartela galduz gero, berehala jakinarazi beharko dio zerbitzua kudeatzen duen enpresari. Edozein kasutan, txartela galduz gero, erregelamendu honetan araututako gainkarga aplikatuko da.

El/la usuaria deberá comunicar inmediatamente a la empresa que gestione el servicio la pérdida de la tarjeta de combustible. En cualquier caso, la pérdida implicará la aplicación del recargo regulado en el presente Reglamento.

**9. artikulua. Matxura, istripua edo lapurreta.**

**Artículo 9. Avería, accidente o robo.**

Erreserba aldian ibilgailua ohi bezala erabiltzea edo ibiltzea galarazten edo mugatzen duen, edo pertsonen segurtasuna kolokan jarriko lukeen arazorik edo anomaliarik antzemanez gero, erabiltzaileak berehala aparkatu beharko du ibilgailua. Edozein matxura zerbitzua kudeatzen duen enpresari jakinarazi beharko zaio, lehenbailehen. Erabiltzailea zerbitzua kudeatzen duen enpresarekin harremanetan jarri beharko da, laguntzarako telefonoaren bidez; autotik bertatik deitu ahalko du. Honako hauetatik eratorritako gastuak prestazio horietatik salbuesten dira: gurpila aldatzea, erregaiaren tankea betetzean erratzea, txartela eta giltza galtzea, txartela ibilgailu barruan giltzapean uztea, ibilgailuan ahaztutako edo galdutako objektuak. Erabiltzaileak gastu horiek guztiak bere gain hartu beharko ditu.

Si durante el periodo de reserva, se detectase un problema o anomalía que impidiese o limitase el funcionamiento o la utilización normal del vehículo, o que pudiera comprometer la seguridad de las personas, el/la usuaria deberá aparcar inmediatamente el vehículo. Toda avería deberá ser notificada a la empresa que gestione el servicio lo antes posible. El/la usuaria deberá ponerse en contacto a través del teléfono de asistencia de la tarjeta de persona usuaria, pudiendo llamar desde el mismo coche. Se excluyen de estas prestaciones los gastos derivados de cambio de rueda, error en el llenado del depósito de combustible, pérdida de tarjeta y llave, tarjeta encerrada en el vehículo, objetos perdidos u olvidados en el vehículo. Dichos gastos deberán ser asumidos en su totalidad por el/la usuaria.

Istripurik izanez gero, erabiltzaileak konpromiso hauek hartzen ditu:

En caso de accidente, el/la usuaria se compromete a:

1. Segurtasuneko txalekoa janztea ibilgailutik atera aurretik, segurtasun eta larrialdi baldintzek ahalbidetzen badute.
2. Beharrezko neurriak hartzea beste istripurik ez gertatzeko; bide seinaleen triangelua erabiltzea ibilgailua babesteko eta gainerako gidarien segurtasuna bermatzeko. Halaber, inor zaurituz gero, erabiltzaileak berehala eman beharko die horren berri larrialdi zerbitzuei (polizia, Ertzaintza, Larrialdi eta Salbamendu Zerbitzua).
3. Zerbitzua kudeatzen duen enpresari istripuaren berri eman beharko dio lehenbailehen (gehienez 24 orduko epean), baita istripuaren ondoriozko larrialdi zerbitzuen esku-hartze guztiaren berri ere.
4. Istripuaren txostena idatzi eta Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateari edo zerbitzua kudeatzen duen enpresari igorriko dio, baita soilik kalte materialak badaude ere. Txostenean datu hauek bildu beharko dira, modu argian eta xehatuan azalduta: istripuaren nondik norakoak, istripuaren kausak, eta, ahal izanez gero, lekukoen, istripua eragin duten eta kaltetutako pertsonen izenak eta helbideak.
5. Ezbeharraren gainean Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak edo zerbitzua kudeatzen duen enpresak eskatzen duen edozein informazio osagarri ematea.
6. Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatearen aseguruarekin kolaboratzea, beharrezkoa den guztian; istripuari buruzko informazio osatua eta egiazkoa ematea.

Lapurretarik izanez gero, erabiltzaileak konpromisoa hartzen du zerbitzua kudeatzen duen enpresari jakinarazteko eta Polizian edo Ertzaintzan ibilgailua lapurtu izana salatzeko, betiere lapurretaren berri izan eta 24 orduko epean. Betebehar hori ibilgailua desagertzen ez den lapurreten kasuan ere aplikatuko da. Txostena, gehienez ere, salaketa aurkeztu den datatik 48 ordura aurkeztu beharko da Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatean edo zerbitzua kudeatzen duen enpresan. Betebehar hori betetzen ez

1.- Ponerse el chaleco de seguridad antes de salir del vehículo, si las condiciones de seguridad y de urgencia lo permiten.
2.- Adoptar las medidas necesarias para evitar la ocurrencia de otro accidente y hacer uso del triángulo de señalización para proteger el vehículo y garantizar la seguridad del resto de conductores. Asimismo, el/la usuaria deberá informar inmediatamente a los servicios de emergencia (policía, ertzaintza, servicio de urgencia y rescate) si alguien estuviera herido.
3.- Informar a la empresa que gestione el servicio cuanto antes (en un plazo máximo de 24 horas) del accidente y de toda intervención de los servicios de emergencia como consecuencia del accidente.
4.- Redactar y enviar a la Mancomunidad de Servicios Uribe Kosta o empresa que gestione el servicio un parte de accidente, incluso en caso de que solo existan daños materiales, en el que se detallen de manera comprensible y minuciosa las circunstancias del accidente, sus causas y, si es posible, el nombre y dirección de las personas perjudicadas o causantes del accidente y los testigos.
5.- Proporcionar cualquier información adicional que sea solicitada por la Mancomunidad de Servicios Uribe Kosta o empresa que gestione el servicio en relación con las circunstancias del siniestro.
6.- Colaborar con el seguro de la Mancomunidad de Servicios Uribe Kosta en todo lo que sea necesario y facilitar información completa y veraz sobre el accidente.

En caso de robo, el/la usuaria se compromete a informar a la empresa que gestione el servicio y a denunciar el robo del vehículo a la Policía o a la Ertzaintza dentro del plazo de 24 horas a partir de que tuviera conocimiento del mismo. Esta obligación se aplicará igualmente en caso de robos que no impliquen la desaparición del vehículo. Este informe deberá entregarse a la Mancomunidad de Servicios Uribe Kosta o empresa que gestione el servicio en un plazo máximo de 48 horas a contar desde la fecha

bada, aseguruaren estaldurak ez du lapurreta bere gain hartuko, eta horrenbestez, dagokion zigorra eta kalte-ordaina jarriko dira.

**10. artikulua.- Zerbitzuan baja ematea.**

Erabiltzaileak zerbitzuan baja eman ahalko du, zerbitzua kudeatzen duen enpresari jakinaraziz, idatziz, modu sinesgarrian, betiere erabiltzailea erabiltzaile gisa dituen betebeharretan egunean badago.

Zerbitzuko bajak ez du zertan baja-eguna izan, eta horregatik, ez da kuota zatituko, ez eta itzuliko ere.

Mankomunitateak erabiltzaileak ibilgailuak erabiltzea aldi baterako eten edo kontratua suntsiarazi ahalko du, aurretiaz abisatu gabe, erabiltzaileak kontratuko edozein baldintza betetzen ez badu, edo istripu kopuru altua erregistratuz gero.

a) Kasu horretan, erabiltzailearen txartela berehala desaktibatuko da, eta erabiltzaileak ezingo du inongo kalte-ordainik eskatu.

b) Etetea edo suntsiaraztea indarrean sartuko da erabiltzaileak txartela lehenbailehen itzultzeko betebeharra duela esateko jakinarazpen-gutuna jasotzen duen unean.

c) Etetea edo suntsiarazpena erreserba aldian jasoz gero, erreserba aldi hori bukatutakoan sartuko da indarrean, baina erabiltzaileak ezingo du erreserba aldi hori luzatzeko eskatu.

d) Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak 30 eguneko epea izango du etetea edo suntsiarazpena

de la denuncia. El incumplimiento de esta obligación implicará la no cobertura del robo por parte del seguro y la consiguiente imposición de la correspondiente sanción e indemnización.

**Artículo 10. Baja del servicio.**

El/la usuaria del servicio podrá darse de baja en el servicio comunicándolo a la empresa que gestione el servicio, de forma fehaciente, siempre y cuando la persona usuaria se encuentre al corriente de todas las obligaciones como persona usuaria.

La baja en el servicio, será independiente de la fecha de baja, y por ello, no supondrá ni el fraccionamiento ni la devolución de la cuota.

La Mancomunidad podrá suspender de forma temporal la utilización de los vehículos por parte de el/la usuaria o resolver el contrato, sin previo aviso, si el/la usuaria incumpliera cualquiera de las condiciones contractuales, o registrara un alto índice de siniestralidad.

a) En este caso, la tarjeta de el/la usuaria quedará inmediatamente desactivada sin que el usuario pueda solicitar ninguna indemnización.

b) La suspensión o resolución entrará en vigor a partir de la recepción por el/la usuaria de la carta de notificación en la que se le informa de su obligación de devolver cuanto antes su tarjeta.

c) Si la suspensión o resolución fuera recibida durante un período de reserva, entrará en vigor a la finalización de dicho periodo, aunque el/la usuaria no podrá solicitar una extensión o ampliación del periodo de reserva en curso.

d) La Mancomunidad de Servicios Uribe Kosta dispondrá de 30 días a partir de la notificación de la suspensión o

jakinarazi den unetik bermea itzultzeko; bermeari kendu egingo zaizkio etete edo suntsiarazpen unean erabiltzaileak zor dituen zenbatekoak.

resolución realizada a el/la usuaria para proceder al reembolso del depósito de garantía, con deducción de las sumas debidas por el/la usuaria en el momento de la suspensión o resolución.

## III. KAPITULUA: ZEHAPEN ARAUBIDEA

### 11. artikulua.- Printzipio orokorrak

a) Erregelamendu honetako zehapen araubidea dokumentu hauen arabera arautuko da: Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea (bertan jasotako printzipioak), otsailaren 20ko 2/1998 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzkoa, eta garapen arauak.

b) Halaber, Toki Araubidearen Oinarriak arautu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen XI. Tituluan ezarritako xedapenak, garapen-arauetan eta erregelamendu honetan jasotakoak aplikatuko dira.

### 12. artikulua.- Arau-hauste motak

1.- Araudi honetan jasotako xedapenei begira egindako arau-hausteak oso larriak, larriak eta arinak izango dira.

2.- Hona hemen arau-hauste oso larriak:

a) Zerbitzua osatzen duten elementuak modu larrian eta esanguratsuan narriatzeko ekintzak.
b) Ibilgailua galtzea, lapurtzea edo ebastea ez salatzea.
c) Ibilgailua sei ordu baino gehiagoko atzerapenarekin itzultzea, betiere interesatuak aurretik abisua eman ez badu.

3.- Hona hemen arau-hauste larriak:

a) Ibilgailua izan den unean ibilgailua ez zaintzea.
b) Zerbitzua osatzen duten elementuak modu larrian narriatzeko ekintza

## CAPÍTULO III: RÉGIMEN SANCIONADOR

### Artículo 11.- Principios generales

a) El régimen Sancionador de este reglamento se rige por los principios contenidos en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, del Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común y la Ley 2/1998, de 20 de febrero, de la Potestad Sancionadora de las Administraciones Públicas y normas de desarrollo.

b) Asimismo, serán de aplicación las disposiciones contenidas en el título XI de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local, normas de desarrollo y de este reglamento.

### Artículo 12.- Clases de infracciones

1.- Las infracciones a las disposiciones de este Reglamento se clasificarán en muy graves, graves, leves.

2.- Son infracciones muy graves:

a) Los actos de deterioro grave y relevante de los elementos que integran el servicio.
b) No denunciar la pérdida, robo, o hurto del vehículo.
c) El retraso en la entrega del vehículo por más de seis horas, sin que mediase preaviso por parte de la persona interesada.

3.- Son infracciones graves:

a) No custodiar el vehículo durante el tiempo de disposición del mismo.
b) Los actos injustificados de deterioro grave de los elementos que

justifikatugabeak.

c) Ibilgailua lau-sei ordu bitarteko atzerapenarekin itzultzea, betiere interesatuak aurretik abisua eman ez badu.

4.- Hona hemen arau-hauste arinak:

a) Zerbitzua osatzen duten elementuak modu arinean narriatzeko ekintza justifikatugabeak.

b) Ibilgailua gehienez ere 4 orduko atzerapenarekin itzultzea, betiere interesatuak aurretik abisua eman ez badu.

c) Uribe Kostako Zerbitzuen Mankomunitateari edo zerbitzuaren enpresa adjudikaziodunari erabiltzailearen datuen edozein aldaketa ez komunikatzea eta 6 puntutik beherako puntu-saldoan puntuak galdu izana ez komunikatzea.

d) Larri edo oso larri gisa jasota ez dagoen Erregelamendu honetako beste edozein arau-hauste.

**13. artikulua.- Zehapenak eta zerbitzuaren baja**

1. Erregelamendu honetan tipifikatutako arau-hausteen gain zehapen hauek ezarriko dira:

a) Oso larriak: - 150,00 eta 200,00 euro arteko isuna.

b) Larriak: - 100,00 eta 149,00 euro arteko isuna.

c) Arinak: - Gehienez 99,00 euroko isuna

2. Araudi honetan tipifikatutako arau-hausteekin batera, zerbitzuan modu honetan baja emango da:

a) Oso larriak: - Zerbitzuan gehienez bi urtez baja ematea.

b) Larriak: - Zerbitzuan gehienez urtebetez baja ematea.

c) Arinak: - Zerbitzuan gehienez 6 hilabetez baja ematea.

3. Isunen zenbatekoak mailakatzeko

integran el Servicio.

c) El retraso en la entrega del vehículo por un plazo de entre cuatro y seis horas, sin que mediase preaviso por parte de la persona interesada.

4.- Son infracciones leves:

a) Los actos injustificados de deterioro leve de los elementos que integran el Servicio.

b) El retraso en la entrega del vehículo por un plazo de hasta 4 horas sin que mediase preaviso por parte de la persona interesada.

c) No comunicar a la Mancomunidad de Servicios Uribe Kosta o a la empresa adjudicataria del servicio del cambio de algún dato personal de el/la usuaria y/o pérdida de saldo de puntos del carné de conducir por debajo de 6.

d) Cualquier otro incumplimiento del presente Reglamento que no esté tipificado como grave o muy grave.

**Artículo 13.- Sanciones y baja del servicio.**

1. Las infracciones tipificadas en este Reglamento serán sancionadas de la siguiente forma:

a) Muy graves: - Multa de 150,00 a 200,00 euros.

b) Graves: - Multa de 100,00 a 149,00 euros.

c) Leves: - Multa de hasta 99,00 euros

2. Las infracciones tipificadas en este Reglamento llevarán aparejada la baja en el Servicio de la siguiente forma:

a) Muy graves: - Baja de hasta 2 años del Servicio.

b) Graves: -Baja de hasta 1 año del Servicio.

c) Leve: - Baja de hasta 6 meses del Servicio.

3. Para la graduación de las cuantías

eta 2. artikuluan aurreikusitako zehapenen iraupena zehazteko, ondoko ingurumari hauek hartuko dira kontuan:

a) Egindako arau-hausteak gizartean duen garrantzia eta eragindako kaltea.

b) Legez kontrako irabazi-asmoa eta arau-haustea egitean lortutako etekinaren zenbatekoa.
c) Arau-hausteak behin eta berriro egitea.

Arau-haustea behin eta berriro egin dela ulertuko da baldin eta araudi honetan aurreikusitako arau-hausteetako bat dela-eta administrazio-bidean irmoa den ebazpen bidez zehapena ezarri bada, betiere zehapen-espedientea hasi aurreko bost urteetan.

4. Baldin eta egitate bat beste arau batzuetan tipifikatutako administrazio-arauhauste bi edo gehiagoren xede bada, zenbateko handieneko zehapena ezarriko da. Espedientea izapidetu eta ebazteko eskumena zehatze-ahalmena duen organoari dagokio.

5. Araudi honetan aurreikusitako edozein zehapen ezartzeak ez du zehapen-hartzailea salbuesten erantzukizun zibiletik eta zigor-erantzukizunetik.

**14. artikulua.- Preskripzioa**

1.- Araudi honetan ezarritako arau-hausteak eta zehapenak modu honetan preskribatzen dira:

a) Oso larriak, hiru urteko epean.
b) Larriak, bi urteko epean.
c) Arinak, sei hilabeteko epean.

2.- Arau-hausteen preskripzio-epea arau-haustea gertatzen den egunetik zenbatzen hasiko da.

3.- Zehapenen preskripzio-epea zehapena ezartzeko erabakitako ebazpena irmo

de las multas y la determinación del tiempo de duración de las sanciones previstas en el apartado 2 del artículo precedente se tendrán en cuenta las siguientes circunstancias:

a) La trascendencia social y el perjuicio causado por la infracción cometida.
b) El ánimo de lucro ilícito y la cuantía del beneficio obtenido en la comisión de la infracción.
c) La reiteración en la comisión de infracciones.

Existe reiteración cuando se hubiere impuesto sanción mediante resolución firme en vía administrativa por comisión de una de las infracciones previstas en el presente Reglamento en el plazo de cinco años anteriores al inicio del expediente sancionador.

4. En el supuesto de que unos mismos hechos sean constitutivos de dos o más infracciones administrativas tipificadas en distintas normas, se impondrá la sanción de mayor cuantía, siendo competente para instruir y resolver el expediente el órgano en quien resida la potestad sancionadora.

5. La imposición de cualquier sanción prevista por el presente reglamento no excluye la responsabilidad civil y penal del sancionado.

**Artículo 14.- Prescripción**

1.- Las infracciones y sanciones previstas en este Reglamento prescriben:

a) Las muy graves a los tres años.
b) Las graves a los dos años.
c) Las leves a los seis meses.

2.- El plazo de prescripción de las infracciones comenzará a contarse desde el día en que la infracción se hubiera cometido.

3.- El plazo de prescripción de las sanciones comenzará a contarse desde el día siguiente

bihurtzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasiko da.

4.- Arau-hausteen eta zehapenen preskripzioa etengo da Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritako baldintzetan.

**15. artikulua.- Arau-hauste eta zehapen independenteak, eta bestelako arloko ordenek eskatu dezaketen zigor-ordenaren lehenespena**

a) Araudi honetan tipifikatutako arau-hausteen ondorioz ezarritako zehapenak bestelako arloko antolamenduen araberako erantzukizuna dakarten egintzen gaineko zehapenetatik independenteak dira.

b) Administrazioaren zehapen-prozeduraren xede diren egintzek zigor-garrantzia dutenean, administrazio-prozedura eten egingo da zigor-prozeduraren ebazpena eman arte.

**16. artikulua.- Organo zehatzailea.**

1. Aurreko artikuluetan aurreikusitako zehatze-ahalmena baliatu ahal izateko, dagokion administrazio-espedientea ireki eta izapidetu beharko da, betiere bat egindа kapitulu honetan ezarritakoarekin eta Administrazioaren zehatzeko prozedura arautzen duten legezko edo erregelamenduzko xedapenekin.

2. Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak zehatze-espedienteak izapidetuko ditu eta administrazio-agintaritza eskudunari helaraziko dizkio, hala behar denetan ebatz ditzan.

3. Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko lehendakariari/ Tokiko Gobernu Batzarrari dagokio arau-hausteetako aurreikusitako zehapenak ezartzea.

a aquel en que adquiera firmeza la resolución por la se impone la sanción.

4.- La interrupción de la prescripción de infracciones y sanciones se producirá en los términos establecidos en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo.

**Artículo 15.- Infracciones y sanciones independientes y prevalencia del orden penal exigible por otros órdenes sectoriales**

a) Las sanciones impuestas por las infracciones tipificadas en este Reglamento son independientes de aquellas que correspondan cuando los actos puedan estar incursos en responsabilidad con arreglo a otros ordenamientos sectoriales.

b) Cuando los actos objeto del procedimiento sancionador administrativo tengan relevancia penal, se dejará en suspenso el procedimiento administrativo hasta la resolución del procedimiento penal.

**Artículo 16.- Órgano sancionador.**

1. El ejercicio de la potestad sancionadora prevista en los artículos anteriores, requerirá la incoación e instrucción del correspondiente expediente administrativo, de conformidad con lo establecido en el presente capítulo y en las disposiciones legales o reglamentarias que regulen el procedimiento sancionador de la Administración.

2. La Mancomunidad de Servicios Uribe Kosta instruirá los expedientes sancionadores y los elevará a la autoridad administrativa competente para su resolución en los casos que corresponda.

3. La imposición de las sanciones previstas para las infracciones corresponderá a la Presidenta/Junta de Gobierno Local de la Mancomunidad de Servicios Uribe Kosta.

**17. artikulua.- Kautela-neurriak.**

Zehapen-espedientea hasita, eta arau-hauste berriak saihestearren, administrazio-agintaritza izapidegileak, kautela-neurri gisa, debekatu ahal izango dio interesatuari Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko ibilgailuak erabiltzea, harik eta dagokion administrazio-prozedura ebatzi arte.

**Azken xedapenetatik lehenengoa.- Indarrean sartzea.**

Araudi hau indarrean jarriko da hori oso-osorik Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean, eta Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 65.2 artikuluan ezarritako epea igaro denean.

**Artículo 17.- Medidas cautelares.**

Iniciado el expediente sancionador, y con el fin de evitar la comisión de nuevas infracciones, la autoridad administrativa instructora podrá adoptar motivadamente como medida cautelar, la prohibición de uso de los vehículos de la Mancomunidad de Servicios Uribe Kosta hasta la resolución del correspondiente procedimiento administrativo.

**Disposición final primera.- Entrada en vigor.**

El presente Reglamento entrará en vigor una vez publicado íntegramente su texto en el Boletín Oficial de Bizkaia, y transcurrido el plazo previsto en el art. 65.2. de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local.

P4800019D
Gatzarriñe, 4
48600 Sopelana
Tlf: 94 657 92 80
Fax: 94 676 28 72

**"UKANAUTO" IBILGAILUAK PARTEKATZEKO ZERBITZUAREN PREZIO PUBLIKOAREN ORDENANTZA ARAU-EMAILEA.**

**I- ZERGAGAIA**

**1. artikulua.**

Zergagaia da Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko ibilgailuak partekatzeko sistemaren bidez erabiltzaileen esku jartzen diren ibilgailuak erabiltzea.

**II.- ZERGADUNAK**

**2. artikulua.**

Ordenantza honetan arautzen den zerbitzua erabiltzeko onartuta dauden eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 34.3 artikuluak aipatzen dituen pertsona fisikoak eta juridikoak zergadunak izango dira eta, hortaz, dagokion prezio publikoa ordaindu beharko dute.

**III. ZERGA OINARRIA**

**3. artikulua.**

Zerga-oinarria zerbitzuaren benetako edo gutxi gorabeherako kostua da. Horretarako, kontuan hartuko dira zerbitzuaren edo jardueraren kostua osoa eratzen duten zuzeneko zein zeharkako gastuak, bai eta izaera finantzarioa dutenak, ibilgetuaren amortizazio-gastuak, eta hala badagokio, prezio publiko hau sortzen duen zerbitzuak edo jarduerak aurrera egingo duela bermatzeko beharrezko gastuak ere.

**IV.- PREZIO PUBLIKOAREN KUOTA**

**4. artikulua.**

Ordenantza honen gai den ibilgailu-zerbitzua erabiltzeagatiko prezio publikoaren kuotak honela finkatzen dira:

**ORDENANZA REGULADORA DEL PRECIO PÚBLICO POR PRESTACIÓN DEL SERVICIO DE USO COMPARTIDO DE VEHÍCULOS "UKANAUTO"**

**I.- HECHO IMPONIBLE**

**Artículo 1.**

El hecho imponible está constituido por la utilización de los vehículos puestos a disposición de los y las usuarias mediante el sistema de uso compartido de vehículos de la Mancomunidad de Servicios Uribe Kosta.

**II.- SUJETOS PASIVOS**

**Artículo 2.**

Son sujetos pasivos obligados a abonar el precio público, las personas físicas y jurídicas, a que se refiere el artículo 34.3 de la Norma Foral General Tributaria y que hayan sido admitidas para el uso regulado en la presente Ordenanza.

**III.- BASE IMPONIBLE**

**Artículo 3.**

La Base Imponible está constituida por el coste real o estimado del Servicio, tomando en consideración los gastos directos e indirectos que constituyen el coste total del servicio o, incluso los de carácter financiero, amortización de inmovilizado y, en su caso, los necesarios para garantizar el mantenimiento de un desarrollo razonable del servicio por cuya prestación o realización se exige el precio público.

**IV.- CUOTA DEL PRECIO PÚBLICO**

**Artículo 4.**

Las cuotas del precio público por la utilización y préstamo de los vehículos reguladas en esta Ordenanza se fijan en la

forma que sigue:

A.- **PERTSONA FISIKOAK**
1.- URTEKO KUOTA

1.- Urteko kuota 30,00 eurokoa da. (Kuota hau ezin izango da zatitu, eta aurretiazko bajak ez du eskubiderik emango zenbatekoak itzultzeko.)

2.- IBILGAILU HIBRIDOA ETA GASOLINAZKO MOTORDUNA ERABILTZEAGATIKO KUOTAK

2.a.- Erabilera-ordu bakoitzaren prezioa: 3,00 euro.
2.b.- Ibilitako kilometro bakoitzaren prezioa: 0,22 €

B.- **PERTSONA JURIDIKOAK**
1.- URTEKO KUOTA

1.b.- Urteko kuota 30,00 eurokoa da. (*Kuota hau ezin izango da zatitu, eta aurretiazko bajak ez du eskubiderik emango zenbatekoak itzultzeko.*)

2.- IBILGAILU HIBRIDOA ETA GASOLINAZKO MOTORDUNA ERABILTZEA

2.a.- Erabilera-ordu bakoitzaren prezioa: 2,50 euro.
2.b.- Ibilitako kilometro bakoitzaren prezioa: 0,22 €

Pertsona juridikoek hilean 5 orduz dohainik erabili ahal izango dute zerbitzua, eta, hortaz, tarte horretan ez zaie kargurik ezarriko erabilera-orduaren kontzeptuan.

Hobari hori asteleheneko 00:00etatik ostiraleko 24:00etara bitartean aplikatuko da.

Nolanahi ere, ibilitako kilometroak Ordenantza honetan ezarritakoarekin bat ordaindu beharko dira.

A.- **PERSONAS FÍSICAS**
1.- CUOTA ANUAL

1.- Se establece una cuota anual de 30,00 euros. (*Esta cuota no será fraccionable, y la baja anticipada no dará derecho a devolución de cuantías.)*

2.- CUOTAS POR USO DE VEHÍCULO HÍBRIDO y DE MOTOR DE GASOLINA

2.a.- Precio por hora de uso: 3,00 euros.

2.b.- Precio por kilómetro recorrido: 0,22 euros.

B.- **PERSONAS JURÍDICAS**
1.- CUOTA ANUAL

1.b.- Se establece una cuota anual de 30,00 euros. (*Esta cuota no será fraccionable, y la baja anticipada no dará derecho a devolución de cuantías*.)

2.- USO DE VEHÍCULO HÍBRIDO y DE MOTOR DE GASOLINA

2.a.- Precio por hora de uso: 2,50 euros.

2.b.- Precio por kilómetro recorrido: 0,22 euros.

Las personas jurídicas tendrán derecho a la utilización del servicio hasta un máximo de 5 horas mensuales, sin cargo, por el concepto de hora de uso.

Esta bonificación será de aplicación desde las 0,00 horas del lunes, hasta las 24,00 horas del viernes.

En cualquier caso, los kilómetros recorridos deberán ser abonados de acuerdo con lo establecido en la presente Ordenanza.

C.- **EGUN OSOKO TARIFAK**

Ibilgailuak egun osoz (24 ordu) erreserbatzen badira, gehienez ere 3 egunez (72 ordu) hartu ahal izango dira, eta ordaindu beharreko tarifa 36,00€/egunekoa izango da, bai pertsona fisikoentzat, bai juridikoentzat.

D.- **GAUEKO TARIFA**

Astelehenetik ostiralera, 23:00etatik 07:00etara, ez dira erabilera-orduak kobratuko, baina bai ibilitako kilometroak.

E.- **BI ZERBITZUTAN ALTA EMANDA**

BIZIMETA ETA UKANAUTO zerbitzu bietan alta emanda dauden pertsona fisikoek pertsona juridikoek duten prezio publiko bera ordainduko dute, hau da, 2,50 euro erabilera-orduko.

**V.- SORTZAPENA**

**5. artikulua.**

Prezio publikoa ordaindu beharra une hauetan sortzen da:

a) UKANAUTOko erabiltzaille-izaera hartzen denean (altagatiko kuota).

b) Ibilgailua erabiltzen amaitu ostean.

**VI. KUDEAKETA, ERAK ETA ORDAINTZEKO MODUA**

**6. artikulua.**

Zerbitzua erabili eta hurrengo hilean kitatu eta ordaindu beharko da prezio publikoa.

**7. artikulua.**

Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak, edo, hala badagokio, zerbitzua kudeatzen duen erakunde autonomiadunak edo baltzuak kitatu eta bilduko du prezio publikoa.

C**. TARIFAS POR DÍA ENTERO**

Para las reservas del vehículo por un día entero (24 horas), con un máximo de 3 días (72 horas) la tarifa será de 36,00€/día, tanto para las personas físicas como para las jurídicas.

D.- **TARIFA NOCTURNA**

De lunes a viernes, entre las 23,00 horas de la noche hasta las 07,00 horas de la mañana, no se cobrará por hora de uso, pero sí por los kilómetros recorridos.

E**. SIMULTANEIDAD**

Las personas que estén simultáneamente dadas de alta en el servicio BIZIMETA y UKANAUTO abonarán el mismo precio público que las personas jurídicas, esto es, 2,50 euros por hora de uso.

**V.- DEVENGO**

**Artículo 5.**

El precio público y la consiguiente obligación de pago se devengarán:

a) Cuando se adquiera la condición de usuario/a de UKANAUTO (cuota de alta)
b) Tras la finalización del uso del vehículo.

**VI.- GESTIÓN, TÉRMINOS Y FORMA DE PAGO**

**Artículo 6.**

La liquidación y pago del precio público se practicará a mes vencido, mediante cargo en cuenta bancaria.

**Artículo 7.**

La liquidación y recaudación del precio público se realizará por la Mancomunidad de Servicios Uribe Kosta, o en su caso, por el Organismo Autónomo o Sociedad que gestione el Servicio.

## VII. ORDENANTZAREN INDARRALDIA

Ordenantza hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta indarrean jarraituko du harik eta testua aldatu edo indargabetzea erabakitzen den arte.

## VII.- VIGENCIA DE ESTA ORDENANZA.

La presente Ordenanza entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia, y seguirá en vigor hasta que se acuerde su modificación o derogación.

Sopelana, 2012ko martxoaren 7a
Lehendakaria

María Isabel Landa Gaubeka

Sopelana, 7 de marzo de 2012.
La Presidenta

María Isabel Landa Gaubeka